

# ZINPEKO AITORTZA

## MENDI-LEHIAKETAK

### AITORTZEN DUT:

1. Jarduera burutzeko behar diren prestakuntza, esperientzia eta gutxieneko ezaguerak ditudala.
2. ....-ko indarreko lehiaketa-araudiari men egitea.
3. Edozein modalitate zein aukeretan parte-hartzeko Federazio-lizentzia dudala – edo hau lortzeko tramiteak burutu izan ditudala jarduera honen baldintzenpean-- .
4. Kirol-jarduera honi zuzenduta doan entrenamendua egin izana. Jardueraren burutzearekin okerrera joan daitekeen lesiorik ez pairatzea, antolakuntzari inolako ardurarik salbuetsiz.
5. Mendi-jarduera, indarreko araudia eta legalitatearen arabera burutzeko konpromisua hartuz, ingurugiroa eta mugituko garen lekua errespetatuz zein mendi-baloreak edonoiz praktikatzuz; edozein mendizaleari lagunduz behar izatekotan, taldea arriskuan jarri gabe, erreskate lanetan lagunduz, e.a.
6. Jardueraren arduradunen erabakiak errespetatu eta betetzea edozein fase edo martxa-taldeetan, jarduera bertan behera uztea barne, baldintza meteorologikoak, ordutegiak, baldintza fisikoak edo beste edozein arrazoi direla medio.
7. Frogako zerbitzu madikoei beharko nukeen edozein sendamen egitera baimentzen diet, beraien laguntza eskatzeko baldintzetan egon edo egon ez arren; beraien eskaeren aurrean, froga bertan behera uztera konprometitzen naiz nire osasuna arriskuan jartzen dudala irizten badute.
8. Parte-hartzearen berezitasun teknikoak eta zailtasun exijentziak ezagutzen ditudala, eta edozein atalean, antolakuntzak emandako arauak, oharrak eta aholkuak momentu oro beteko ditudala.
9. Jardueraren antolakuntzako ordezkari guztiak eta/edo pertsona fisiko zein juridikoei, jatorri naturala duten edo mendiarekin erlazioa duten bat-bateko istripu zein kirol-istripu batetik suerta daitezken arduretatik salbuetsiz.
10. Osasun arazoak tarte, jarduera honetan parte-hartzearen ondorioz ager daitezken kalteez aldeztu aurretik aipatutakoei salbuetsiz. Bertan parte-hartzeko behar den esfortzu fisikoa osasunarentzat arrisku-atxikia suposatzen duela onartuz.
11. Jardueran parte-hartzearen ondorioz suerta daitezken egoerez aurretik aipatutakoei salbuetsiz: objektu pertsonalen galera edo hondatzea, apurtu edo higatu direlako, zein lapurketa edo beste arrazoi batzuk.

12. Jardueran parte-hartzearen arriskuak zeintzuk diren badakidala, bai informatu nautelako eta informazio horrekin ados nagoelako, bai beharrezkoak diren galderak egin eta zalantzak argitu ditudalako. Hauen artean:

- Kranpoi eta pioletekin aurrera egin behar diren eremuak, elur mota ezberdinak eta elur-jausien indar-eremuak. Muturreko tenperatura hotzak eta/edo haize gogorrak zein laino itxiak, euri edo elurte indartsuak.

- Eski-alpinismo aukera hautazten dutenentzat: edozein aldapa edo elurretan egindako mugimenduak eta jaitsierak; izoztutakoak, hautsa, sakonak, gogorrak, e.a.

- Antolakuntzak parte hartzen duten mendizaleei eskainitako garraio hurreratze-logistikoetan, jardueraren hasiera eta bukaerako guneeetan errepideen edo pisten egoerak ez dutela segurtasun baldintzak betetzen eta bidaiari gisa paira dezakedan edozein istripuz antolakuntzari salbuetsiz.

- Alpinismoa edo eski-alpinoaren praktikari atxiki daitekeen kirol-istripuren bat paira daitekela, pertsonalki onartuz hauen ardura eta suerta daitezkeen lesioak, antolakuntzari istripu honen edozein ondorioen arduraz salbuetsiz.

13. Uneoro antolakuntzak eskatutako materiala eramango dudala –nahikoa bateriadun telefono mugikorra barne–, eta nire, edo barne nagoen progresio taldearen segurtasuna bermatzeko, antolakuntzak jarritako ordutegi, ibilbide zein material aldaketen inguruko instrukzioak jarraituko ditudala.

14. Natura eta ingurugiroarekin errespetuz jokatu dudala eta nire zaborra ibilbidean zehar ez dudala botako, jardueratik kaleratua izan naitekela jakinik horrela egiten badut.

## **Data**

- SINADURA -

NAN – IZEN-ABIZENAK